

Aurrera segitzen du bere eraldaketa planean

## **EROSKI-K 46 MILIOI EURO TRANSFERITU DIZKIE BEZEROEI URTEKO LEHEN BI HILETAN**

- Orain berriki, programa bat atera du, EROSKI Cluben Urrezko txartel berria duten Bezero Bazkideei %4ko deskontu finkoa egiteko beren erosketa guztietan
- Otsailean, Balearretan, EROSKIk beherapen orokor bat egin du prezioetan
- Datozen urteetan, EROSKIk lehentasuntzat jarri du lehiakortasuna indartzea eta Bezero Bazkideei are eta abantaila handiagoak eskaintzea

**Elorrio, 2018ko martxoaren 7a.-** EROSKIk jarraitzen du lehiakortasuna gero eta gehiago hobetzen, eta 46 milioi euro transferitu dizkie bezeroei, eskaintza eta promozio are eta pertsonalagoak eginez. Bezero Bazkideen komunitatean ardatza ipintzeko estrategia horretan, teknologia berrien gaitasuna ari da aprobetxatzen, eta, hala berean, hitzarmenak egiten dihardu unibertsitateekin eta zentro teknologikoekin, zertarako eta barne ekintzailatzeko proiektuak garatzeko eta hala Bezero Bazkideei proposamen berritzaile gehiago egiteko.

Azken urteetan kooperatibak martxan jarri dituen berrikuntza proiektuen harira, EROSKIk programa aurrendari bat atera du, EROSKI Cluben Urrezko txartel berria dutenek %4ko aurrezpen finko eta unibertsala izan dezaten bere saltokietan egindako erosketa guztietan, baita gasolindegri sarean ere erregaia erostean. Bezero Bazkideek saldo eran ikusiko dute aurrezpen hori, EROSKI Club txartelean, ondoko erosketetan erabiltzeko.

"*EROSKI Cluben Urrezko txartel berria atera dugu, bi urtean proiektuak lantzen aritu eta gero*", esan du Eva Ugartek, EROSKIren marketin zuzendariak.

Era berean, Balearretako denda sarean, EROSKIk beherapen bat aplikatu du otsaileko prezioetan 4.000 produktutan; horrek deflazioa ekarriko die bezeroei erosketak egiteko orduan, asmoa baita haien erosahalmena handitzea. "*Balearretan*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*beherapen orokor hau egiteko moduan dago EROSKI, azken urteetan horniketa katean hobekuntzak egin baititugu", azaldu du Ugartek.*

### **Aurrera doa bere negozio planarekin**

EROSKI aurrera doa bere negozio planarekin, eta finantza entitateekin zituen konpromiso guztiak bete ditu. Bi urte honetan, EROSKIk bizkortu egin du bere denda sarearen eraldaketa, eta, dagoeneko, belaunaldi berriko 31 hipermerkatu eta 574 supermerkatu ditu, urtean 100 milioi euro inguru inbertituta. Bestalde, kooperatibak Bezero Bazkideekin duen harremana indartu du, eta, gainera, 260 milioi euro aurreztu dizkie azken urtean.

Datozen urteetan, EROSKIk lehentasun gisa jarriko du lortu duen lehiakortasuna bizkortzea eta Bezero Bazkideei eskainitako abantailak gehiago hobetzea; era berean, taldeen gaitasuna handitzeko programa berriak landuko ditu, eta hitzarmen proiektu aurrendariak egiten dihardu Unibertsitateekin eta adimenaren arloko beste zentro batzuekin, barne ekintzailletza sustatzeko.

### **EROSKIri buruz**

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.600 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, hor ditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horrez gain, gasolindegia, optikak, bidaiak bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)